

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

- **Zein da zure bezeroa?**

Gure proiektuaren bezeroak ikasbidairako dirua irabazi nahi duten ikasleak dira, zehazki DBH4 eta 2. Batxilergoko ikasleak. Haiek dira proiektuaren ekintzaile nagusiak, merendolak antolatuz eta salduz bidaiaaren kostua murriztea delako haien helburua.. Hala ere, negozioa merendolak antolatzean oinarritzen denez, zerbitzua ez dute ikasleek bakarrik jasoko, merendoletan parte hartzen dutenen haurren gurasoak ere gure bezeroak dira, normalean haiek dira merendola antolatzeko baliabideak ordaintzen dituztenak. Beraz, proiektua merkatu multilateral baten adibidea da, bi bezero-talde nagusi izan harren horren barruan bezero sailkapen zehatzago bat egiten delako. Alde batetik, ikasleak daude, zerbitzua antolatu eta bultzatzen dutenak ikasbidairako dirua lortzeko. Bestetik, gurasoak daude, merendolen zerbitzua jasotzen eta ordaintzen dutenak. Bi taldeek behar desberdinak dituzte, baina elkarren mendekoak dira, proiektuak ondo funtzionatzeko.

- **Bezeroen ezaugarriak**

- **Ikasleak (bezero nagusiak eta ekintzaileak)**

- Adina: 15–18 urte (DBH4 edo 2. Batxilergoko ikasleak)
- Beharrak: Ikasbidairako dirua irabaztea, taldean jarduerak egitea, erantzukizuna eta parte-hartzea sustatzea
- Motibazioa: Bidaiaaren kostua murriztea, esperientzia sozial eta hezitzailea izatea
- Papera negozioan: Merendolak antolatzen eta saltzen parte hartzen dute, proiektuaren motor nagusia dira

- **Gurasoak (bezero ordaintzaileak)**

- Adina: 35–55 urte (gutxi gorabehera) HH eta LH-ko haurren gurasoak)
- Beharrak: Seme-alaben urtebetetze festa antolatzea
- Balioesten dutena: Antolaketa ona, elikagaien kalitatea eta segurtasuna, helburu hezitzailea
- Papera negozioan: Zerbitzua jasotzen dute, normalean haiek dira ordainduko dutenak